

NORBERARI BERE:

“ATAÑO”

Lau Haizetara euskaldunon elkarte



Hondarribiko Amute auzoan bada Kaputxinoen konbentu bat. Hantxe daramazki azken 21 urteak 1912ko agorraren (irailaren) Sean Bordaxar baserrian jaiotako Xalbador Zapirain Ezeiza “Ataño”. Aitona, osaba eta aita bertsolari izanik, berak norabide horri jarraitzea ez zen izango harritzekoa, baina 22 urterekin kartzelara eraman zuten Guda Zibila zela medio. Halaxe jasotzen du *Espetxeko Negarrak* liburuan nola ustekabeen sartu ziren Bordaxarrera.

“Jauzi batean aurrean txutik jarrita, pistola txar bat eskuan, “¡manos arriba!” oihu egin ziguen erdera latzean.

Alako ustegabekoa uan, zer pentsatu ez genekila geratu giñun, elkarri begiraka gorriak edo beltzak zer ziran ezaguturik, “bertan txikituko al degu?” esan nairik bezala. Baña etzegoken txarrean asterik. Atez kanpora ari zuten elkar-izketa nabaitu genin. Ez uan bakarrik etorritako txororen bat (...). Bazkaltzen asi berriak giñun. Zegon bezela mai gañean utziz, aita aurretik besok jaso, zazpi semeok ondoren, gerea gendun etxetik aurrean atera gaitziken. Kanpora orduko ikasi genin sartu berri ziran oieta-koak zirala (...). Aixa agindu zitelen besteren etxean (...). Aietako

palanje gazte batek ala zioken, lelo bat bezala: ¿Todos habéis de morir! (...) Jainkoa beste lekukorik etzuetenean. Zenbat olako ez ote zuten egin? Il ta aurrera, odolarekin mozkortuta. (...) Orduko larritasunak igaro itun. Gero gerokoak. Otoitz egin nin, Nere Jesukristo Jauna pin asko esan ere. San Markos'en ere Jainkoa gurekin izango al genin. Berdin errugabeak giñala ongi zekiken Arek”.

Guda madarikatu haren ondorioz “Atañoen” bi anai fusilatu zituzten eta bere joerak errotik trunkatu.

68 urte zituen arte ez zuen bere lehenengo liburua argitaratu *Txantxangorri kantaria* hain zuzen. Hala ere, dozena bat elaberrerekin batera milaka bertso ere idatzi ditu, orduz geroztik.

Gaztetan bertsozale eta bertsolari, geroago bertso jartzaile eta idazle lanetan trebatua, betidanik euskaltzale izan den gure herriko seme honek otoitza, baratzeko lana eta idaztea ditu egin-behar bere eguneroko bizian.

Ihazko Santo Tomas egunaren gerizpean omendu zuen LAU HAIZETARA euskaldunon elkarteak bere ohorezko bazkidea. Ondoren, Hondarribian eta Euskal Herriko Bertsolari Elkarteak Donostian omendu dute.

Berari galdetuz gero nola ikusten dituen guzti horiek honela erantzuten du:

“Nik ez det hainbeste merezi. Herriak ez daki zeini egin. Behinik behin, gure urteak badijoaz eta hemendik aurrera erdia beharko degu”.

Egia esan, berak ez ditu behar omenaldiak, baina merezita-koak dituela ez dago zalantza izpirik. “Atañoen” berri jakin nahi zuenak zerbait ikasi du eta LAU HAIZETARA elkartearen Bertsolaritza Saileko Xenpelar bertso eskolak *Bertsolariya* urte-ka-riaren laugarren alean “Atañoekin” izandako elkarriketa aberatsa ere eskura dezake. Bere liburuak ere hortxe ditu:

Txantxangorri kantaria (1979)

Txori (1981)

Espetxeko negarrak (1984)

Zigorpean (1985)

Eltzaorra (1985)

Odol kutsua (1986)

Maitasunaren lanak (1989)

Etorkizuna (1988)

Maite itzazue etsaiak (1989)

Aztia usnari (1990)

Azkeneko saskigilea (1991)

Nora goaz (1994)

Umila bezain lanean prestua, bere urteak badoazela esaten badu ere, oraindik asko dauka egiteko. Jarrai dezala bertsoak eta elaberriak idazten, Euskal Herrian bere lanek harrera ona izango baitute.

